

**Kale Neurketa** <  
>SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA




**EUSKAL HERRIKO KALEETAKO  
HIZKUNTZA-ERABILERAREN VII. NEURKETA**  
*-Neurtzaileentzat aurkezpena-*

**2016**



1. Ikerketaren ibilbidea
2. Neurketaren beharra
3. Helburuak
4. Parte hartzaileak
5. Eskuratuko diren datuak
6. Zabalpena
7. Epeak
8. Metodologia:
  - a) Datu bilketa
  - b) Egutegia
  - c) Neurtuko diren herriak
  - d) Neurtzaileen eginbeharrak eta ordaina



# IKERKETAREN BILBIDEA

80ko hamarkadan sortutako oinarri teoriko eta metodologikoa

- Lehen neurketak Siadecok

Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketak

- 1989, 1993: Euskal Kulturaren Batzarra
- 1997, 2001: SEI elkarte
- 2006, 2011: Soziolinguistika Klusterra

2011ko neurketan 362.000 herritarren erabilera behatu zen

Metodologian hobekuntzak (aldagai gehiago, datuak errazago jasotzeko, datuen fidagarritasuna ebaluatzeko...)

Atzerrian ikusmira handia; nazioarteko soziolinguistikan aitzindari behaketa bidezko erabilera neurketei dagokienez

# NEURKETAREN BEHARRA




**Erabileraren datua** hizkuntzaren egoera ezagutu eta baloratu ahal izateko **ezinbesteko aldagaia da**. Egun aski onartua dago hizkuntza sustatzeko eta normalizatzeko ezein egitasmoren jomuga, erabilera areagotzea izan behar dela.

Hizkuntza errealitatea zehaztasunez ezagutzea ezinbestekoa da berau sustatzeko eginiko ahaleginek zenbateko eragina izan duten ezagutzeko. **Oinarri zientifiko sendoko ikerketek** soilik berma dezakete diagnosien balioa.

Hizkuntza-plangintzan edo euskararen normalizazioan diharduten eragileek datu soziolinguistikoaren falta sumatzen dute. Ikerketa hau da **behaketa bidez jasota Euskal Herri osoko datuak** ematen dituen bakarra.

# HELBURUAK



# PARTE HARTZAILEAK



## Soziolinguistika Klusterra

- Proiektuaren zuzendaritza eta koordinazioa.

## Finantzatzaileak

- Ikerketaren diseinuan eta emaitzen zabalpenean parte hartuko dute.

## Batzorde Zientifikoa

- Gai tekniko-metodologikoetarako erabakigunea.

## Iritzi-emaitzak (soziolinguistikaren adituak)

- Emaitzak zabalpenerako datuen adituek analisian eta irakurketa egingo dute. Datuen interpretazioa, besteak beste, lurraldeen edo zonaldeen arabera edota hiztunen ezaugarrien arabera izango da.


## Neurtzaileak

- Datu-bilketa arduratuko dira.



# DATUAK

Hizkuntza-erabilera hainbat aldagaiekin gurutzatuko dugu. Hona hemen jasoko dugun informazio nagusia:



# ZABALPENA



Ondorengo bideak erabiliko dira neurketa eta bere emaitzen berri emateko. **Guztietan egingo da ikerketaren finantziazioan lagundu duten erakundeen aipamena.**

Aurkezpen ekitaldia (prentsaurrekoa)

Prentsa bidezko zabalpena

Emaitzen webgunea interneten

Emaitzen argitalpena

Jardunaldi/Mintegia

Aurkezpen-hitzaldiak

Argitalpen espezializatuetan artikulua.....





# EPEAK



Hauek dira ikerketa gauzatzeko epe nagusiak

	2015			2016												2017							
	X	XI	XII	I	II	III	IV	V	VI	VII	VIII	IX	X	XI	XII	I	II	III	IV	V	VI	VII	
PRESTAKETA	█	█	█	█	█	█	█	█	█	█	█	█	█										
DATU-BILKETA													█	█									
ANALISIA															█	█	█	█	█	█			
ZABALPENA																						█	█



# METODOLOGIA: Datu bilketa



## IBILBIDEAK

- 125 udalerritako 320 ibilbide neurtzea aurreikusten da.



## NEURRALDIAK

- **Ibilbide bakoitzean 6 orduko datu bilketa** egingo da Hegoaldean eta 12 ordukoa Iparraldean:
  - Asteazken arratsaldea (2 ordu)
  - Larunbat goiza (2 ordu)
  - Larunbat arratsaldea (2 ordu)*(Lapurdin, Nafarroa Behean eta Zuberoan neurraldiak bikoiztu egingo dira)*



## EGUTEGIA

- Neurketa guztiak **iraila eta urria** bitartean egingo dira, udazkeneko ordutegi aldaketa aurretik (ahalik eta argi ordu gehien izateko)



## NEURTZAILEAK

- Neurtzaile talde profesionala arduratuko da datu bilketaz. Ibilbideetako neurketa bakoitza bi neurtzaileren artean egingo da. Landa-lan osoa burutu ahal izateko 180 neurtzailetik gorako taldea antolatuko da.



## Egutegia

Neurketa 5 astetan zehar luzatuko da. Ibilbideak ausaz banatuko dira egutegian, neurketa garaiak ahalik eta eragin txikiena izan dezan.

Neurketa guztiak udazkeneko ordutegi aldaketa aurretik burutuko dira (ahalik eta argi ordu gehien izateko).

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
IRAILAK 19	IRAILAK 20	<b>IRAILAK 21</b>	IRAILAK 22	IRAILAK 23	<b>IRAILAK 24</b>	IRAILAK 25
IRAILAK 26	IRAILAK 27	<b>IRAILAK 28</b>	IRAILAK 29	IRAILAK 30	<b>URRIAK 1</b>	URRIAK 2
URRIAK 3	URRIAK 4	<b>URRIAK 5</b>	URRIAK 6	<b>URRIAK 7</b>	URRIAK 8	URRIAK 9
URRIAK 10	URRIAK 11	<b>URRIAK 12</b>	URRIAK 13	URRIAK 14	<b>URRIAK 15</b>	URRIAK 16
URRIAK 17	URRIAK 18	<b>URRIAK 19</b>	URRIAK 20	URRIAK 21	<b>URRIAK 22</b>	URRIAK 23
URRIAK 24	URRIAK 25	<b>URRIAK 26</b>	URRIAK 27	URRIAK 28	<b>URRIAK 29</b>	URRIAK 30

## Neurtuko diren herriak

Guztira 125 udalerri neurtuko dira:

**-ARABA :** Erriberabeitia, Lantaron, Agurain, Gasteiz, Bernedo, Kanpezu, Bastida, Eltziego, Guardia (Biastari), Oion, Aramaio, Zigoitia, Zuia, Amurrio eta Laudio.

**-BIZKAIA:** Igorre, Orozko, Otxandio, Ugao, Urduña, Zeanuri, Abanto-Zierbena, Arrigorriaga, Basauri, Bilbo, Erandio, Galdakao, Getxo, Larrabetzu, Ortuella, Portugalete, Abadiño, Durango, Ermua, Zaldibar, Zornotza, Balmaseda, Zalla, Bermeo, Gernika-Lumo, Lekeitio, Ondarroa, Barrika, Gortiz, Lemoiz eta Mungia.

**-GIPUZKOA:** Hondarribia, Irun, Eibar, Elgoibar, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza, Oñati, Andoain, Donostia, Errenteria, Hernani, Oiartzun, Urnieta, Usurbil, Beasain, Legazpi, Ordizia, Zumarraga, Anoeta, Tolosa, Villabona-Amasa, Azkoitia, Azpeitia, Zarautz, Zestoa eta Zumaia.

**-NAFARROA GARAIA:** Tafalla, Zangoza, Altsasu, Arbizu, Baztan, Bera, Etxarri Aranatz, Irurtzun, Iturmendi, Lakuntza, Olatzagutia, Uharte Arakil, Urdiain, Atarrabia, Barañain, Berriozar, Burlata, Iruñea, Zizur Nagusia, Agoitz, Erro, Esteribar, Irunberri, Otsagabia, Azagra, Azkoien, Lodosa, San Adrian, Lizarra, Viana, Corella eta Tuteria.

**-IPARRALDEA:** Baiona, Donibane Lohizune, Kanbo, Hazparne, Hendaia, Ziburu, Biarritz/Miarritze (Ekialdea), Baigorri, Orzaize, Aiherra, Bastida, Akamarre, Bidaxune, Donapaleu, Donazaharre, Donibane-Garazi, Izpura, Heleta eta Irisarri.



*Oharra: behin-behineko zerrenda da honakoa.*

## Neurtzaileen eginbeharrak eta ordaina



Neurtzaileek kaleko elkarrizketetan entzuten duten hizkuntza eta hiztunaren hainbat ezaugarri jasoko dituzte.

Euskal Herri osoan 180 neurtzaile arituko dira, bikoteka, datuak biltzen.

### EGINBEHARRAK:

- Irailean neurtzaile guztiek prestakuntza saioak jasoko dituzte (bi orduko saioa).
- Iraila bukaeran eta urrian datu bilketa egingo da, asteazkenetan eta larunbatetan (orotara 30 ordu).

### ORDAIN SARIA:

- 448 € (PFEZ atxikipena ezarriko zaio) eta bidai/dieta gastuak.
- “*Kale Neurketaren metodologian aditua*” ziurtagiria, interesa dutenei.
- Euskal Herriko erabilera datuen txostena eta aurkezpen ekitaldirako gonbidapena.
- Neurtzaile izanaren aitortza BAT soziolinguistika Aldizkarian.



**Informazio osagarririk nahi izanez gero jarri gurekin  
harremanetan:**

**[kaleneurketak@soziolinguistika.eus](mailto:kaleneurketak@soziolinguistika.eus) ,  
943592556**

Maialen Iñarra, Neurtzaileen deialdi arduraduna  
Olatz Altuna, Euskal Herriko VII. Kale Neurketaren  
zuzendaria

**MILA ESKER**